

GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO “DENDA-LAN” LAGUNTZA PROGRAMA

PROIEKTUAREN HELBURUAK:

- Gaitasun soziolaboralen eta komunikazio-arlokoen maila handitzea.
- Gaitasun digitalak handitzea.
- Prestakuntza: **KUTXA ERAGIKETAK ETA PRODUKTUA BIRJARTZEA** (80 ordu):
 - Bezeroarentzako oinarritzko arreta.
 - Kutxa eta Saltokiko Terminala:
 - STren elementuak, ezaugarriak eta erabilera.
 - ST irekitzea eta ixtea.
 - Skanerra eta produktuaren informazioa irakurtzea.
 - STren beste eginkizun osagarri batzuk.
 - Deskontuak, promozioak eta bonoak STn.
 - Salmenta-eragiketen kobrantza- eta ordainketa-prozedurak
 - Ordaintzeko eta kobratzeko sistemak eta bitartekoak.
 - Ordainagiriak.
 - Fakturaren eta ordainagiriaren arteko aldeak.
 - Itzulketak eta bonoak.
 - Kobrantza- eta ordainketa-eragiketen erregistroak
 - Kutxako kontaketa.
 - Produktua birjartzea.
 - Produktuak antolatzea eta banatzea.
 - Erakusgai jartzeko mailak.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- 20 eta 55 urte bitartekoa izatea, eskaera egiten denean.
- Eibarren erroldatuta egotea.
- Langabezian egon eta Lanbiden izena emanda egotea.
- Gehieneko kualifikazioa batxilergoa izatea.
- Gaztelaniaren ahozko nahiz idatzizko ulermen-maila egokia izatea.
- Gutxienez, honako baldintza hauetako bat betetzea:
 - Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo langabezia jasotzea.
 - Familia-kargak izatea (programan parte hartzeko eskaeran azaldu).
 - Iraupen luzeko langabea izatea (12 hilabete baino gehiago).

ESKAERA EGITEKO EPEA:

2021eko maiatzaren 3tik maiatzaren 21era (biak barne).

TRAMITATZEKO BIDEAK:

- **Presentziala:** PEGORA, Herriarren Zerbitzurako Bulegoa (Untzaga plaza 1, beheko solairua). Aldez aurretik **hitzordua** hartu behar da.
- **Elektronikoa:** Udalaren www.eibar.eus webgunearen bidez: Izapidea elektronikoki egiteko, ziurtagiri digital bat eduki behar da (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.)

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- Gizarteratzeko eta laneratzeko “DENDA-LAN” programan parte hartzeko eskaera behar bezala beteta. PEGORAn eta www.eibar.eus udal webgunean dago eskuragarri.
- Eskatzailearen NANA edo horren balio bereko beste dokumenturen bat.
- LANBIDEk egindako txostena, langabe gisa inskribatuta egondako aldiei buruzkoa.
- Curriculum vitae eguneratua.
- Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua eta ordezkapena dokumentu bidez egiaztatua. Egiaztapen hori, zuzenbidean baliozkotzat har daitekeen edozein bitartekoren bidez egin daiteke (notario-ahalordeak, eskriturak...).
- Eskatzailea Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta baten titularra bada, baldintza hori betetzen duela egiaztatzen duen agiria.

PROGRAMAREN GARAPENA

1. BANAKAKO ETA TALDEKAKO JARRAIPENA.
 - a. Diagnostiko espezializatua.
 - b. Laneratzeko plan pertsonala.
2. FORMAKUNTZA.
 - c. Gaitasun soziolaboralak eta komunikazio-arlokoak.
 - d. Konpetentzia digital oinarrizkoak.
 - e. **Kutxa-eragiketei eta produktua birjartzeari** buruzko konpetentzia espezifikoak (60 ordu).
3. PRESTAKUNTZA PRAKTIKOA ENPRESETAN (20 ordu).
4. LANERATZE-PROZESUAN LAGUNTZEA.